

AEZKOAKO TOPONIMIAREN BILKETA 2015

Proiektuaren historia laburra

Urrun ditugu gure lurraldeko leku guztiak egunean behin baino gehiagotan zapaltzen genituen garaiak. Historikoki harreman eta lotura estua izan dugu gure lurraldearekin, eta txoko bakoitzari erreferentzia egiteko beharra izan dugu; horregatik, horiei izena emateko beharrean izan gara. Ez da harritzekoa, bada, Aezkoako toponimia aberatsa izatea.

Baina gure bizimodua aldatzearekin batera (abeltzaintzaren arloan emandako aldaketagatik bereziki), gero eta gutxiago erabili izan ditugu zenbait alderdiren izenak, eta, kasu askotan ere, erabiltezin gelditu dira. Duela zenbait hamarkada, esaterako, lurren kontzentrazioak egitearekin, pentze eta soro asko elkartu ziren, eta horiekin batera izen bereziak desagertu eta eremurako generikoak horiek baino ez dira gelditu; izan ere, alor bakoitza desagertzearekin batera, hura aipatzeko beharra desagertu zen.

1996. urtean Nafarroako Gobernuak, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza. Toponimia y cartografía de Navarra izeneko* bildumaren barnean, Aezkoako toponimoak biltzen zituen zenbakia argitaratu zuen. Bertan bilduta zegoen izen multzo handia, bai oraindik erabiltzen zirenak, bai historikoak. Hala ere, lana osatzen joateko beharra nabaria zen.

Hori dela eta, 2004. urtearen bukaeran, Aezkoako Batzarre Nagusiak bildu gabe zeuden toponimo horiek guztiak jasotzeko deialdia egin zien gaian interesatutako aetz guztiei.

Deialdiari erantzun zion, besteak beste, Alberto Lerindegik, bilketan lan egiteko prest agertu zena. Alberto, erretiroa hartuta, Garraldara itzuli zen bizitzera. Oharturik azken urteetan Garraldako izan asko desagertzen ari zirela eta denbora librea aprobetxatuz, herriko planoak lortu eta lanari ekin zion. Garraldako adinekoen laguntzarekin, 600dik gorako toki izen bildu zituen, Rosina andreak eta Rakel alabak paperean idatziko zituztenak. Lana bukatutakoan ikusgai jarri zuen Garraldako Etxabarrengoa elkartearen. Erakusketa horretan egon zen ere Miguel Angel Lorea (Landa), Orbarako toponimia jasotzen ari zena.

Lana Aezkoako Batzarre Nagusiak koordinatuta hasi zen. Batzarreak eskaini zizkien boluntarioei mapak eta lanerako beharrezko materiala. Zenbait herritan laguntzailerik aurkitu ez zirenez eta beste batzuetan lanean hasi zirenen emaitza urriak zirela eta, poliki-poliki, Alberto eta Miguel Angel herri guztietako ikerketa hartzen joan ziren, herri bakoitzean norbaiten laguntza zutela. Ordu andana eman zuten Bideondokoan, mapak biltzen eta zabaltzen etxeko jangelako mahaiaren gainean, herriz herri pertsonak elkarriketatzen eta mendian barna, ibilgailuaren kapotan mapak jartzen zituztela.

Lan hori bukatutzat eman zen hasi eta 6 urte geroago, eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren esku utzi zen, akordio ekonomiko batera ailegatu ondoren.

Lau urte geroago, Miguel Ángelek eta Daniel Iriartek pentsatu zuten mapa guztietako toponimoak geografikoki erreferentziatu behar zirela, Interneten bidez kontsultatu ahal izateko. www.rutasnavarra.com webgunearen bidez, zenbait GPS software direla medio eta Txema Iriarte, Carlos Elizondo eta Rakel Lerindegiren lanari esker, lan hori aurtengo uztailean bukatu da.

Hala ere, ohartarazi behar dugu hemen aurkezten dugun lana Aezkoako toponimia berreskuratzeko dauden zeregin guztien artean bilketari dagokiona baino ez dela. Toponimiaren

arloko adituek ere ez dute lana gainbegiratu, eta, hortaz, ezin dela bermatu agertzen diren izenak egoki edo zuzen agertzen diren. Aurrerantzean, Aezkoako Batzarre Nagusiak ekin beharko dio lan horri, behin betiko bukatuta geldidadin.

Toponimiaren ikerlana eta mapak (1997-2010)

- Bilketa eta ikerlana:

Norberto Alberto Lerindegi (1932)
Miguel Ángel Lorea (1949)

- Logistika:

Junta del Valle de Aezkoa
Rakel Lerindegi (1973)

- Laguntzaileak:

Abaurregaina: Carlos Arostegi (1949), Inaxio Iturralde (1922), Juan José Lorea (1958), Emilio Mendia (1932)

Abaurrepea: Pablo Juandeaburre (1938), Severiano Iriarte (1923?)

Aria: Isidoro Jaukikoa (1928), Florentino Juandeaburre (1938), Inés Juandeaburre (1953), Joakin Juandeaburre (1940), José Ramón Pedroarena (1943?)

Aribe: Carlos Elizondo (1950), Juan Carlos Elizondo (1961), Mitxel Elizondo (1955), Paulino Maisterra (1932)

Garaioa: Juan Laurenz (1934), Florentino Laurenz (1939), Félix Jamar (1946), Jesús Orradre (1966)

Garralda: Sotero Iriarte (1911), Francisco Iturri (1929), Rufino Lerindegi (1929), Alberto Lerindegi (1932), Rosina Iriarte (1936), Perfecta Iriarte (1938), Jaime Barberena (1969), Rakel Lerindegi (1973)

Hiriberri: Ángel Antxo (1932), Gregorio Burusco (1930), Eduardo Burusco (1942), Ángel Juango (1943) Faustino Antxo (1940), Bittor Burusco (1948), Anabel Burusco (1971)

Orbaizeta: Sabino Egurze (1933), Ricardo Zabalza (1927), José Mari Iriarte (1942), Rafael Larrañeta (1946), Luis Mari Antxo (1954)

Orbara: Eduardo Arozarena (1932), Miguel Ángel Lorea (1949)

Aezkoa Ibarra: Beñardo Antxorena (1937), Jean Batiste Barberena (1932?), Mixel Sukia (1936?), Ttale Uret (1938?).

Mapak GPS bihurtzea eta Webgunera pasatzea (2014-2015)

- Webgunea egitea, mapa birtuala:
Txema Iriarte (1960)
- GPS formatura bihurtzea:
Carlos Elizondo (1950), Rakel Lerindegi (1973), Daniel Iriarte (1962).
- Itzulpena:
Asier Iriarte (1976), Idoia Zabalza
- Koordinazioa:
Daniel Iriarte (1962)